

BERRIGARA

98. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, martxoak 5

ELOSU:
AUZO-
ALKATEAREN
ARAZOA
KONPONDU
NAHIAN


MARTXOAK

8

HAINBAT
EKITALDI
EMAKUMEAREN
EGUNAREN
INGURUAN

KIROLAK

ALOÑA-
MENDIREN
AURKAKO
DERBYAK
SEKULAKO
IKUSMINA PIZTU
DU



**ELURRAK ERABAT
AZTORATU
GAITU**

LARUNBATEAN EGUERDIKO 12ETAN INAUGURAZIOA

LAKOTA O. E.

**BURDINAKI DENDA
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZA**

Amillaga, 1 3. Pabiloia
Tfnoa eta faxa: 76 08 32 BERGARA

ARANZADI IKASTOLA

93 / 94 IKASTURTERAKO
AURREMATRIKULA EPEA:
MARTXOAK 1 - 15
(BIAK BARNE)

INFORMATU ETA ERABAKI

INFORMAZIORAKO ETA
IZENAK EMATEKO, PLAZAKO
IDAZKARITZAN.

GOIZEZ: 8.30 - 13.00.

ARRATSALDEZ: 15.00 - 18.00.

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
 eta Mikel Elkorobereziabar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
 Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
 Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta
 Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
 Angel Elkorobereziabar, J. M.
 Elxepuru, J. Oregi, A. Urzelai,
 Maripi Laskurain, N. Alzelai,
 Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
 Lizarralde, Monika Belastegi,
 Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
 Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
 eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifru.

Komikia eta marrazkiak: Josu
 Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Euzko Jauriaritzako Kultura eta
 Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

ELURTEA

Aste honetako elurteak herri guztia hantkaz-gora utzi du. Aste-ko gairik aipatuena izateaz gain, azken hamar urteetako bigarren elurterik haundiena izateagatik aste-ko protagonista bihurtu da.

Elurra kaleetatik kendu nahian jo eta sua ibili direnak, udaltzain, kalegarbitzaile eta udal langileak izan dira. Guztira, 40 lagun inguru.

Elurrak 120 zentimetrotarainoko altuera hartu du Itxumendin, 80 Elosun eta ia 30 kalean.

Zuhaitzak eta teilatuak behera etorri dira hainbat lekutan eta ar-



gindar barik geratu dira etxe ugari.

Elurteari probetxua atera diotenak, ostera, oinetako, kirol eta arropa dendatakoak izan dira, negu guztian saldu ez dituztenak saldu baitituzte hiruzpalau egunegun haue-tan.

120 zentimetro Itxumendin, 80 Elosun eta 30 kalean

ITURRI ONETIK

Bergara K.E.ko erreleboa prest

Bergara K.E.ren zuzendaritzaren erreleboa hartzeko Juanjo Arizmendik bultzatutako taldean German Lazkano Antxonikoa izango da burua eta elkarte-ko presidente izendatuko dute seguruen hurrengo Asanblada Orokorrean. Alex Garitano eta Josetxo Zabaleta oraingo presidente eta diruzainak ez dute jarraituko eta beraz, besteak beste, German Lazkano, Manolo Boizas, Bigen Aranzabal edota Iñaki San Josek zuzendaritza batzorde berria osatuko dute.

ESAN DUTE

"Gure etorkizuna ziurtatzea da momentu honetan gazteoi gehien kezkatzen gaituen arazoa. Gutxienezko autonomia izan, independentzia familiar erreal bat lortu eta kontsumorako gutxienezko aukerak izatea.

Hortik hasita langabezia gainditzea izango litzateke etorkizunari begira gure kezka nagusia".

MIKEL ZUBIMENDI
 JARRAIko kidea
 EUSKADI IRRATIA

"Etzaniz eta Zezezaga dira faborito nagusiak. Primeran dabilen Zezeaga atzean izanik, Etzanizek ez du jokoan gehiegi parte hartzen baina egin behar duena ondo egiten du".

FERNANDO CASTRO
 Kazetaria
 DEIA

Atsedeen zentrua
LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01




Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

EZPELETA
 etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



LA MUERTE OS SIENTA TAN BIEN

Ostirala: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30. eta
22.15.
Astelehena: 19.30.



EL BESO DEL SUEÑO
Larunbata: 17.00, 19.30 eta
22.30.



SOLO EN CASA II
Igandea: 11.30.

Zinea

▼▼ **Robert Zemeckis** (*Regreso al futuro*) arrakastatsua eginiko azken filma. Oraingo honetan edertasuna eta gaztetasunaren inguruko komedia bat dakarkigu, **Meryl Streep**, **Bruce Willis** eta **Goldie Hawn** ezagunen eskutik.

▼▼ Estatuan egiten den *zine beltza* deiturikoaren lekuko, **Maribel Verdu** eta **Juan Diegok** protagonizatutako filme hau saritua izan zen Huelvako azken zine jaialdian.

▼▼ Lehen zatiarekin egundoko arrakasta lortu ondoren ondoren, ezinbestekoa zen bigarren zatia egitea. Honetan ere **Macaulay Culkin**ek ehundaka alprojakeria egingo die parean tokatzen zaien lapur gizajoei.

Ikuskizunak

▼ **Bertso Jaialdia.** Ostiralean, martxoak 5, Elgetako Frontoi Zaharrean "Lizarreta", Aitor Sarasua, Jon Enbeita eta Andoni Egañarekin., Gai-jartzailea Arantzazu Loidi izango da. 22.30etan.



Arantzazu Loidi.

Farmaziak

▼ **Larunbata 6:**

Puy.

▼ **Igandea 7:**

Puy.

▼ **Astelehena 8:**

Guallar.

▼ **Asteartea 9:**

Estella.

▼ **Asteazkena 10:**

Mozos.

▼ **Osteguna 11:**

Camacho.

▼ **Ostirala 12:**

Puy.

Ogia

▼ **Igandea 7:** Ogizun.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Ibargai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Liburuak eta diskoak


Erakusketak

▼ **Emakumeek** egindako eskulanak eta Eulalia Abaituaren argazki erakusketa egongo dira ikusgai Kultur Etxean martxoaren 14ra arte.

▼ **Eskulanak.** Maria Asun Akizu, German Amurrio eta Javier Ugalde Simon Arrieta Zeramika taldeko kideen erakusketa ikusgai izango da Elgoibarreko Kultur Etxean martxoaren 12ra arte.

Aukeran

▼▼ **Emakumearen Nazioarteko Egunaren** inguruan hainbat ekitaldi iragarri ditu Emakumearen Laguntzarako Udal Zerbitzuak: hitzaldiak (astelehen, asatezken eta ostiralean 7etan Kultur Etxean), antzeslanak (astearte eta domekan 7etan Zabalotegin eta Mariaren Lagundian) edota zinea (ostegunean 7 t'erdietan Novedadesen).



Kirolak

▼ Eskubaloia:

- *Bergara-Leizaran* (jubenil neskak). **Larunbatean** 11etan.
- *Bergara-Bidebieta* (kadete mutilak). **Larunbatean** 15.45etan.
- *Bergara-Aloña Mendi* (senior gizonak). **Larunbatean** 17.00etan.

▼ Futbola:

- *Bergara-Añorga* (lehen mailako infantila). **Larunbatean** 10.30etan Ipintzan.
- *Bergara-Groseko* (2. mailako kadetea). **Larunbatean** 12etan.
- *Bergara-Fortuna* (2. errejionala). **Larunbatean** 16.00etan.
- *Bergara-Orioko* (lehen jubeniila). **Larunbatean** 17.45etan.
- *Bergara-Gazteak* (2. jubeni-

la). **Igandean** 11.45etan.

- *Bergara-Aloña Mendi* (lehen kadetea). **Igandean** 13.30etan.
- *Bergara-Aloña Mendi* (preferente maila). **Igandean** 16.45etan.

▼ Saskibaloia:

- *Ibili Bergara-San Cermin* (senior gizonak). **Larunbatean** 18.30etan.
- *Bergara-Sallkom* (senior neskak). **Igandean** 12.15etan.

▼ Atletismoa:

- **Larunbatean** Gipuzkoako Atletismo Txapelketarako baliogarririk izango diren honako proba hauek jokatuko dira Agorrosinen 10etatik aurrera: 60 m. (alebin eta infantilak), luzera jauzia (alebin eta infantil neskak) eta pisu jaurtiketa (alebin eta infantil mutilak).

5

PROFESIONALAK

- Retegi - Tolosa / Eugi - Beloki (ETBk zuzenean).
- Ladutxe - Urrutia / Balerdi - Armendariz.
- Kalonge - Astarloa / Badiola - Buenetxea.

Udal Pelotalekuan
larunbatean arratsaldeko
4.30etatik aurrea.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ *Motorren bobinaketa*
 - ✓ *Era guztietako instalakuntzak*
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tinoa: 76 23 48



KORTA-ZAR

Txokolategia

*Pintxo eta ogibarteko en
espezialitatea*

HEMENDIK AUERRERA OSTIRALETAN
GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62.

Denboraldi baterako radixo barik

Txapa Irratixa zapatuan 27xan itxi ein zan restrukturaziño baten bila.

Txapa Irratixa zapatuan itxi ein zan, Udaletxiak konbenixo berri bat nahi dabenez, martxuaren 1ean, astelehenian, izango dan Plenuak erabakitzen dabarenaren zain. Konbenixo berri hauen arte zaonan antzerakua da, aldaketa batzurekin.

Dana dala, lokalaren situaziño kaxkarra dala ta, Txapa Irratixak itxitxa jarraitxuko dau asanbleiaren erabakiz, lokala hobetu arte. Lokala hobetziaren arrazoiak: bentilaziño gutxi egotia, lokala txikixa izatia eta onduan dagoen komun batek sortzen ditxuan humedade problemak die.

Bestalde, zenbait jenteren irrati-xarekiko ardura ezak barruko restrukturaziño batera bultzatzen gaitxu.

Honekin, ikusitxa programaziñuak be kanbixo batzuk eskatzen ditxuala (berriztu, programa berrixak sartu eta honek dakarren konplika-ziño guztiak) programaziño berri bat

eingo da.

Ixte honekin lortu nahi dana, Txapa Irrati hobe eta partizibatuagua da.

Beraz, badakizu parte hartzen interesatuta bazare etorri zaitxe zapaturo eguerdiko 12xetan Gaztetxian eixen dien reunixotara.

Txapa Irratiko Asanblada

Aurrerapenak direla eta...

Nire herria mendiz inguraturiko herri bat zen,
 baina "aurrerapenak" zirela eta mendi hauetan kriston astakeriak egiten hasi ziren,
 natura gure "aurrerapenen" menpe jartzen hasi ziren,
 baina egunen batean konturatuko dira
 alferrikakoak izan direla egin ditzuten autobide, harrobi eta abarrak
 gure inguruan mendirik ez badago,
 gure inguruan naturarik ez badago.

Espero dut hau gertatu baino lehenago konturatuko direla "aurrerapen" horiek askotan ATZERAKADAK direla.

Aitziber L. A.

Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeari

Xabier Gallastegik BERRIGARA 93. alean eginiko adierazpen batzuk kritikagarriak direla uste dugu, plazako murala Mendia Bizirik-eri ematea erabaki duzuela motibo ekologistak direla eta, hain zuzen ere. Baina mesedez ez zaitezte etorri esaten mural batzuk ekologikoak direla eta beste batzuk zikinak, gaizki egindakoak eta okerrena, permiso gabe eginak.

Ekologia gaur egun modan dagoen zerbait da, eta zuek ere gurdi horretara igo nahi izan duzue baina eskerrak gure herriko ibaia, zuhaitzak, mendiak isilik daudela, bestela txistu algarada bat jasoko zenuketen.

Eguzki

Tiira ba!



Josu Okina



Astelehenean emakumearen eguna dela eta, hainbat ekitaldi iragarri dira

Astelehenean, martxoak 8, ospatuko den Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan, Emakumearen Laguntzarako Udal Zerbitzuak, Emakunde eta Diputazioaren laguntzaz, *Emakumearen IV. Ihardunaldiak* antolatu ditu.

Astelehenean, arratsaldeko 7etan, Begoña Muruagak "Gizartearen antolamendua gizonaren arabera?" izenburuko hitzaldia emango du Kultur Etxean. Asteartean, ordu berean, Oihulari antzerki taldeak *Modelo Clown-contrapublicitaria* antzezlan eskeiniko du Zabalotegiko aretoan. Asteazkenean Maria Luisa Mujika eta Rosa Sorrainek "Novelas rosas, enseñar deleitando" hitzaldia emango dute 7etan Kultur Etxean. Ostegunean, berriz, *Sugarbaby* (azpidatzia) filmea ikusi ahal izango da Novedadesen 7 terdian eta ostiralean hitzaldi berri bat izango da Kultur Etxean; oraingo honetan Virginia Imazek "Mitología y roles sexuales" izango ditu aztergai. Igandean, 7etan, antzerki emankizuna arratsaldeko 7etan Mariaren Lagundian Dekadrakma taldearen



Emakumeek egindako eskulanak Kultur Etxean izango dira ikusgai datorren martxoaren 14ra arte.

ren *Fascinación* antzezlaneanekin. Bestalde, martxoaren 4etik 14era bitartean emakumeek egindako eskulanak eta Eulalia Abaituaren argazki erakusketa izango dira ikusgai Kultur Etxean.

Alazne Irazabal Emakumearen Zerbitzuko arduradunaren hitzetan, *"ihardunaldi hauekin emakumeenganako sensibilizazioa piztu nahi dugu. Aurten, gainera, ekitaldiak atzeratu ditugu emakume langileei etortzeko aukera emateko"*.



Eulalia Abaituaren (1853-1943) Gure aurreko andrak argazki erakusketa.

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07



Artekale, 15
behea.
BERGARA
☎ 76 58 86



- SUKALDEA
- ORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK

Bergarako krisia irratian aztergai

Larunbatean, martxoak 6, Loiolako Herri Irratiko "Krisian, geroari begira" saioan Bergaran krisiak dituen berezitasunak, etorkizunerako bideak edota aurrera ateratzeko ahalbideak izango dira aztergai goizeko 11 t'erdietatik 12.40etara. Bertan, Victoriano Gallastegi alkatea, Marije Unamuno Udaleko Enplegu teknikaria eta Mikel Lazpiur enpresaria izango dira eta entzuleek 810857 telefono zenbakira deituz hartu dezakete parte.

Matrikulaketa aurrea Aranzadi Ikastolan

Aranzadi Ikastolak martxoaren 1etik aurrera 1993/94 ikasturterako matrikulaketa aurrea irekita dagoela jakinarazten die interesatuei. Beraz, 1990ean edo aurretik jaiotako haurrak datorren ikasturtean Aranzadin matrikulatzeko interesa dutenek martxoaren 15a arte Ikastolako Idazkaritzan izena eman dezakete, goizez 8.30etatik ordubatera eta arratsalde 3retatik 6etara.



Astelehenean ELA eta CC.OOk eginiko enkartelada.

Despidoen kontra TAVEXen

ELA eta CC.00 11 despidoen kontra azaldu dira

Tavex taldeko ELA, eta CC.OO eta sindikatuek enkartelada bat egin zuten astelehenean 11 langileren despidoen kontra protesta egiteko. Enpresak arrazoi teknologikoak eman ditu despido horiek justifikatzeko baina sindikatuek ez dute onartzen enpresaren jokatubidea, etorkizunean honelako kasu gehiago errepika litekeela salatuz.

Tavexek, aldiz, 5 milioi pta. eskeintzen dizkie langileei enpresa lagatzeko baina sindikatuek adierazi dutenez, "izan dira 5 milioi horrek hartzeko prest egon diren

langileak baina enpresak ez die eskeintza hori egin. Horrek demostratzen du ez dagoela langilerik sobran eta 11 horiek botatzeko interesa besterik ez dutela, arrazoi pertsonal hutsak daude atzetik". Azkenik, sindikatuek protestekin aurrera jarraitzeko asmoa azaldu zuten, "langileengan akordio interesgarririk lortzen ez bada, enpresan jarraitu beharko luketela" adieraziz. Datorren asteazkenean, martxoak 10, langileei beren alegazioak aurkeztu eta enpresa uzteko epea amaitzen zaie.

P. MANSO

OPTIKA

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar ibilbidea 2, tfnoa: 76 27 86

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



**ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA



Benito Canterok iaz aurkeztutako lan bat.

Diapositiba lehiaketa

Lanak martxoaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira

Pol-Pol Argazki Taldeak eta Bergarako Udalak Herri mailako Diapositiba Lehiaketa deitu dute. Bertan edozein bergararrek zein Pol-Pol Argazki Taldeko kideek parte hartu ahal izango dute eta gaia librea izango da, mendiko edo naturako diapositiba onenarentzat sari berezia izango delarik.

Partaide bakoitzak 24x36 neurriko sei diapositiba aurkeztu beharko ditu, egilearen izena, helbidea eta telefonoa markotxoan jarritz. Lanak martxoaren 25a baino lehen entregatu beharko dira Pol-

Pol tabernan edota Kultur Etxeko liburutegian. Esan bezala, mendiko diapositiba onenak sari berezia jasoko du eta, horrez gain, 5 bilduma onenak ere sarituko dira.

Antolatzaileek izendatutako epaimahaiak, martxoaren 27an emango du puntazioa arratsaldeko 6etan Pol-Poleko lokaletan egingo den ikusketan eta sari banaketa eta proiektzioa, berriz, apirilaren lehen osteguna, arratsaldeko 8etan egingo da Pol-Pol Mendizale Taldeak Komenio kalean dituen lokaletan.

Istripua Ibargarai kalean

D.F.G. 69 urteko bergararra larriki zauritua izan zen joan den asteazken arratsaldean, Ibargarai kalea zeharkatzen ari zenean Audi 100 markako kotxe batek harrapatu ondoren. Zauritua Gasteizeko Santiago Eritexera eraman zuten eta ostegun arratsaldean UVIn ingresaturik jarraitzen zuen.

Pelota Kiniela atzeratu

Zezeagak eta Ansotegik (Etxaniz ordezkaturik) Eugi eta Belokiren aurka igandean jokatu behar zuten partidua bertan behera geratu zenez, Berrigara Pelota Kinielarik ere ez zen izan. Kiniela egin zutenen boletoak baliogarriak izango dira martxoaren 14rako, partidua jokatzeko den egunerako. Bestalde, astelehenean, Tolosan, Tolosa III.ak eta Zezeagak Urionagunea eta Galarzaren aurka jokatu dutenerako kinielak bete daitezke ohizko tabernetan. Finala, berriz, Bergarako Pelotalekuan jokatu da martxoaren 20an.

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

MINER Ardo onak, ard^oak jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



San Martzial ermitaren inguruan arboladi bat egiteko asmoa dago.

Udalak San Martzialen lursaila erosi

Asteleheneko Plenoan Kultur Etxeko erakusketa aretoaren erregelamendua eta arte biltegiko proiektua ere onartu ziren

Astelehenean Kultur Etxean eginiko Plenoan Udalak, besteak beste, Haziendako hainbat gastu proposamen, San Martzial gunean 4'8 hektareatako lursail bat erostea, edota Kultur Etxeko erakusketa aretoa arautzen duen erregelamendua onartu zituen.

Alderdi guztiak bat etorri ziren San Martzialen 48.600 m² inguruko lursail bat (Aizpetik San Martzialera doan tartea) gerosteko orduan. Plenoan jakin arazi zenez, Udalak 7.300.000 pta. ordaindu beharko du lursail horrengatik eta,

hor dauden eta Udalarrenak ez diren pinuak kendu ondoren, asmoa bertan arboladi bat jartzeari litzateke.

Kultur Etxeko erregelamendua

Bestalde, Kultur Etxeko erakusketa aretoa arautzen duen erregelamendua behin betiko onartu zen HB eta EAren kontrako eta EAJ, PSOE eta EEren aldeko botoekin. Jose Luis Garitanok (EA) bere alderdiak, behin behinekoarekin gertatu zen bezala, behin betikoa ere ez zuela

onartuko adierazi zuen eta HB kontra azaldu zen segurua ez zelako jasotzen ez bata ez bestean.

Aurreko erregelamendurekin konparatuz, oraingoan erakusketa egin duten guztiei curriculum moduko bat, erakutsiko diren objetuen zerrenda beren neurri eta pisua zehaztuz, lanen hainbat argazki edota datu pertsonalak eskatuko zaizkie eta ezin izango dira lanak erakustokian salgai jarri. Era berean, Udalak, erakusketa irauten duen bitartean, ez die aurre egingo lanek jasotzeko kalte, urraketa

edo lapurretei baina zaindari bat jarriko du eta, beti ere, erakusten den lanetako bat bereganatzeko eskubidea izango du (egileak 3 gorde ahal izango ditu).

Udal arte biltegiko proiektua

Onartutako Haziendako gastu proposamenen artean Agorrosingogune guztia (Aitonetatik Agorrosin bertaraino) berrantolatzeko estudio eskatzea edota San Juango plaza txukuntzeko eskatutako proiektua aipa daitezke. Azoka berriko baxuetan egin beharreko udal arte biltegiko proiektua 400.000 pta. tan onartu zen.

Victoriano Gallastegi alkateak Udal Euskaltegia hiru-lau hilabete barru San Migel Patronatoko lokaletara pasako zela aurreratu zuen eta kultur taldeei lokalak uzteko kontratu eredia ere onartu zen aho batez.

Azkenik, Enplegu eta Gizarte Ongizate Zerbitzurako administrari-laguntzailea eta Gizarte Ongizate Zerbitzurako gizarte-laguntzailea kontratatzeko oinarriak onartu ziren, EA horren kontra azalduz, Jose Luis Garitanoren esanetan, "gure alderdia organigramaren kontra azaldu zelako eta lanpostu horien premia zalantzan jaritzen dugulako".

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
 kazuelak
 gertatzen ditugu

Ibargarai 15

PAGOMENDI

Angiozartarren elkarte

Angiozarren dagoen Pagomendi elkarte 1955. urtean zabaldu zen. Orain elkarte kokatuta dagoen lokala, lehen abade baten korta zen. Auzoak saltzeko eskatu zion elkarte egiteko. Abadea edade-tua zen jadanik eta saldu egin zuen korta hura. Orduko fundatzaileek pala eta pikotxarekin egin zuten elkarte gutzia Zerrajerako lan orduak eta gero.

Hasiera hartan nahiko arazo izan zuten elkarte-ko arauak zirela eta. Adibidez, bazkide ez zenik ezin zen sartu elkartera urtean bost egun seinalatu-tutan ezik. Bazkide berri-rik ez zen onartzen gainera. Baina beno, gogor egin eta guzti hoiek aldatzea lortu zuten.

Garai hartan 44 bazkide zituen Pagomendik. Gaur egun 52 dira eta denak Angiozarreko seme-ak gainera. Bazkide ha-uen batzbesteko adina 55 urtetakoa da. Pago-

mendin Anselmo Arrieta apaiza dugu ohorezko bazkide, baina orain kanpoan dago.

Luis Maria Ugarte, Jose Luis Errasti, Leon Aranzabal eta Jose Idigoras Pagomendiko bazkideek azaldu zigutenez, urtean 1.800.000 pztatako kaja batzen dute gutxigorabe-hera. Elkarte hontan mugimendu gehien uztaile eta abuztuan izaten dute. Bi hilabete hauetan oso giro ona egoten da Pagomendin, jendea oporretan bait dago. Angiozartar askok Zerrajeran egiten du lan, eta uztailean hartzen dituztenez oporrak, animazio handiagoa egoten da



Joxe Idigoras, Felix Etxeberria, Luisito Azkarate, Leon Aranzabal eta L. M. Ugarte, Pagomendiko bazkideak.

elkartean. Hilean 800 pztako kuota ordaintzen dute. Faltetan, azaldu diguten bezala, nahiko gaizki dabilta, %5era iristen bait dira batz-beste.

Momentu hontan, nahiz eta konponketa-

txoren batzuk egiteko egon, ez dago proiektu handirik.

Bestalde, elkartearen eguna Maiatzaren 1ean ospatzen dute bazkari batekin.

Sukaldean abilak direnak ere asko daude Pagomendin. Besteak beste, Pedro Bengoa, Benedicto Ugarte, Nikolas Agirrezabal eta Jose Domingo Belastegi. Guzti hauek dantetik gertatzen omen dute.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1955ean.
BAZKIDEAK: 52.
HELBIDEA: Herriko Plaza, 40.
PRESIDENTEA: Jose Ruiz de Egin.
ELKARTEAREN EGUNA: Maiatzak 1.
URTEKO KUOTA: 9.600 pzt.

Ainboa Lete

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

**PELI NARBAIZA
IBARZABAL**



Mutua General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

GANBARA

**Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin**

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**T
B
E
R
N
A**



Eguraldiaren igarleek aurrez eman zuten abisua, alegia, arreta haundiz ibiltzeko, elur-ekaitza gainera zertorkigula eta. Askotan huts egiten badute ere, oraingoan bete-betean asmatu dute. Orain dela 8 urte botatako elurte izugarri haren ondoren hamarkadako haundiena izan dugu egun hauetako hau. Auzo batzuk inkomunikatuta geratu dira, eta

elurraren pisuaz zuhaitz eta adar asko lurrera etorri dira, eta teilaturen bat edo beste ere bai.

Arazo eta eragozpen ugari sortarazi digu elurrak, baina poztasuna ere ekarri digu, zapatu gauean lehen elur malutak jauzten hasi zirenean eta pixkanaka zuritzen hasi zen heinean, geure burua aztoratzen joan zen eta.

Iragarritako elur ekaitzaren kronika




Elurtearen ondoren elur panpinak ugaritu egiten dira han eta hemen.

Aurrez ingurueta-ko mendiak zuritzen hasiak baziren ere, kalean larunbat gauean ikusi genituen lehen elur malutak, nahiz eta arratsalde partean txingorrek zertxobait zuritu. Igande goizean, oster, 15 zentimetro inguruko elur kapa zuri batek estaltzen zituen kaleak. Elurrez egindako muñekoak, neska-mutikoak jolasean, bota haundi eta polainez jantzitako mendizale eta eskiatzaileak... Aurretik iragarrita zegoen elur ekaitzak ekarri zituen.

Eragozpen eta problema ugari

Alabaina, elurrak hainbat eragozpen ere sortarazi ditu azken egunotan. Antzuolan eta Bergarako auzoetan batez ere, baina baita kalean bertan ere, etxe gehienak argindar barik geratu ziren igandean. Toki batzuetan asteartera arte



ilunpean izan dira. Problema gehien Antzuola, Elosu eta Angiozarren izan dira.

Antzuolako lantegi garrantzitsuenetan (Goizper, Elay, Matz Erreka, etab.) eta baita lantegi txikietan ere, esate baterako, ez dute lanik izan asteartera arte.

Ikastetxe gehienek normal eman dituzte klaseak, baina Lanbide Hezkuntza Institutuan ez zuten astelehenean klaserik izan argindarra joan zelako eta Batxilergo Institutuan, kanpoko irakasle batzuk ezin izan zuten Bergarara etorri. Eskola Autobusa erabiltzen duten ertainetako ikasleek ere, astelehenean ez zuten klasera etortzerik izan.

Herriko etxe gehienetan, bestalde, telebista barik izan dira asteazkenara arte. Batzuetan, lehen katea bakarrik ikusten zen. Antza denez, San Miguel eta Itxumendiko antenak hondatu egin ditu elurrak eta toki horietara ailegatzeko zailtasuna dela eta (Itxumendin 120 zentimetrorainoko elur kapa zegoen asteazkenean), konpontze lanak atzeratu egin dira.

Zuhaitzak lurrera

Elurraren pisuak eraginda, zuhaitz ugari behera etorri dira. Bergaratik Angiozarrerako kaminon, Amuskibar inguruan, pinuak behera etorri ziren igandean. Kanean, berriz, Olaso Torreko lorategiko magnolioaren arrama batzuk Komenio kalean aparkatuta zeuden bi kotxeren gainera jausi ziren, kotxe baten atze-



Igande goizean, Olaso Torreko magnolioaren arrama, argazkiko kotxearen gainera etorri zen.

kaldeko kristala puskatu zutelarik.

Antzuolan ere elektrizitate poste baten gainera jausi zen arbola bat.

Teilatuak behera

Herriko hainbat teilatu

eta tejabana ere behera etorri dira. Masterreka 10eko garaje batzuetako teilatua esate baterako, behera etorri zen astearte goizean. Garajea hutsik zegoenez, kalte materialak ez dira garrantzi haundikoak izan, baina momentu horretan ondo-

tik pasa zirenek susto ederra hartu zuten.

San Lorentzoko poligono industrialean, bestalde, fabrika bateko tejabana behera etorri zen. Kasu honetan ere ez da inportantzia haundiko kalte materialik izan.

Esan behar da elurteak



Masterreka 10eko garajearen teilatua behera etorri zen elurraren pisuak eraginda.



Elurrak kalea eta kotxeak erabat estali ditu egun hauetan

ez duela kalte pertsonalik eragin.

40 lagun lanean

Elurteak sortarazi dituen eragozpenak herri-tar guztiok sufritu badi-tugu ere, normalean bai-no lan gehiago izan dute-nak udaltzain, kalegarbi-tzaile eta udal langileak izan dira. Guztira, 40 la-gun inguru aritu dira ka-letik elurra kentzen. Ka-lean pilotuta geratzen zen elurra kamioietan kargatu eta erre-kara botatzen ari-tu dira.

Azken hamarkadako elurterik haundienetakoa

Egun hauetako elurtea azken hamar urtetako bi-garrena izan da. 1985eko urtarrilean jauzitakoa izan zen haundiena. Or-duan metro erdirainoko elur kapa neurtu zen ka-lean eta bi astetan zuri-zuri izan genituen kaleak,

izotza egin zuen eta.

Egun hauetan 120 zentimetro naurtu dira Itxumendin, 80 zentime-tro Elosun, 70 Angiozarko Goimendi auzoan, 50 zentimetro Pol-Poleko iturrian, 35-40 inguru An-giozarren, beste hainbes-te Antzuolan, 30 gutxigo-rabehera Uberan eta 25 zentimetro kalean.


Salmentak gora

Elurteari probetxua atera diotenak oinetako, kirol eta arropa saltzaile-ak dira. Oinetakoak sal-tzen dituen dendari batek BERRIGARARI adierazi dionez negu osoan saldu ez dituztenak saldu di-tuzte hiru egun hauetan. Mendiko botak eta ka-tiuskaķ barra-barra saldu omen dituzte. Kirol den-datan ere asko saldu dute, batez ere mendiko bota, polaina eta txamarrak.


Argi dago elurra ez dela denen gustokoa; ba-tzuei, egunero-egunero kotxea erabili beharra

dutenei, esate baterako, ez zien grazia haundirik egingo, baina oinetako-ak, kirol gaiak eta arropak

saltzen dituzten dendari-ei, eta haur eta gazteei primeran etorri zaie, ez dago dudarik.



Udaltzainak ere, jo eta sua kalea garbitzen.



Aipatu dugun bezala egun hauetako elurtea azken hamar urteetako bigarren haundiena izan da. 1985, 1987 eta aurtengoa izan dira elurterik haundienak. Narbaiza Boluko Luis Mari Agirrek 1983.etik zenbatu izan ditu Bergaran egunero-egunero egin duen euri eta elur kopurua, eta temperaturak. Behean erakusten dizugu 1985eko urtarrileko elurteak, azken urteetan ezagutu den haundiena, datutan eman zuena.

EGUNA	ELURRA (litroak metro karratuko)	TENPERATURAK		ELURRA (Zentimetrotan)
		Min.	Max.	
4	4.4	-3	9	-
5	3.1	0	8	-
6	-	-10	0	17
7	18.1	-8	0	24
8	4.1	-4	2	31
9	30	-8	-1	35
10	1.9	-2	0	32
11	-	-1	2	28
12	0.9	-10	2	24
13	9.6	-3	4	22
14	19	-3	4	35
15	2.2	-4	-1	52
16	5.5	-7	-1	44
17	1.5	-1	5	36

EMAKUMEAREN IV. JARDUNALDIAK

MARTXOAK 8 ASTELEHENA

HITZALDIA

GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA
GIZONAREN ARABERA?
Begoña Muruaga Kultur Etxean
arratsaldeko 7etan

MARTXOAK 10 ASTEAZKENA

HITZALDIA

NOBELAS ROSAS, ENSEÑAR
DELEITANDO
Maria Luisa Mujika eta Rosa Sorarrain
Kultur Etxean arratsaldeko 7etan

MARTXOAK 12 OSTIRALA

HITZALDIA

MITOLOGIA Y ROLES SEXUALES
Virginia Imaz, arratsaldeko 7etan

MARTXOAK 9 ASTEARTEA

ANTZERKIA

"MODELO
CLOWNTRAPUBLICITARIA"
OIHULARI antzerki taldea
Zabalotegiko antzokian arratsaldeko
7etan

MARTXOAK 11 OSTEGUNA

ZINE-KLUBA

"SUGAR BABY"
Novedades Zine Aretoan arratsaldeko
7.30etan.

MARTXOAK 14 IGANDEA


ANTZERKIA

"FASCINACION"
DEKADARAMA taldea Mariaren
Lagundiko antzokian, 7etan

ASTELEHENETIK IGANERA BITARTEAN, EMAKUMEEK EGINDAKO
ESKULANAK ETA "GURE AURREKO ANDRAK" IZENEKO ARGAZKI
ERAKUSKETA KULTUR ETXEAN

ANTOLATZAILEA: Emakumearen Udal Zerbitzua • **LAGUNTZAILEAK:** Emakunde eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Bergaran alkate bakarra dagoen arren, badaude beste zortzi auzo-alkate: Osintxu, Elosu, Muriñondo, Basalgo, San Juan, Ubera, Angiozar eta Elorregikoak. Auzo-alkatea aukeratzea legez Bergarako alkateari dagokio. Elosun, Osintxun, Ubera eta San Prudentzian duela 17 urte hasi zen auzo alkatearen figura lanean. Franco hil ondorengo Elosuko lehen alkatea orain dagoen Manuel Oruesagasti izan zen, Manuelek dioen moduan: "ni Jose Luis



Elosuko auzo-alkatearen kontuaren inguruan adostasunera heltzeko, bilera bat egingo da aurki.

Elosu: auzo-alkatearen arazoari irtenbidea aurkitu nahian

Elkoro lehen aldiz alkatetzan zegoenean hasi nintzen, orduan Ramon Sasieta apaiza hil zen eta elizako papeletan ikusi genuen Elosuko azken alkatea Claudio Orbea izan zela, ez dakit data seguru baina bere semeak orain 85 urte ditu". Aurreko legegintzaldian Manuel ordezkatzuz Balentin Gabilondo izan zen Elosuko alkate, baina legegintza berriarekin Bergarako alkateak berriz Manuel aukeratu zuen alkate eta hori dela eta arazoak sortu dira Elosuko auzo-asanbladaren eta Bergarako alkatearen artean.

VICTORIANO GALLASTEGI:

"Ni prest nago Elosura hitz egitera joateko, baina kondizionante barik"

- Ze arazo dituzue momentu hauetan Elosun?

- Gure aldetik orain Elosun ez dago arazorik, uste dugu egin duguna ondo egina dagoela. Orain Elosuar batzuk ez daudela ados guk jarritako auzo alkatearekin, hori beste gauza bat da, baina nere ustez argi eta garbi dago auzo alkatea aukeratzea niri dagoki-

dala. Orainarte bozketa egin izan da auzo batzuetan eta nik onartu ditut bozketa hauetatik irten-dako alkateak. Baina Elosun egindako bozketa izendapenaren ondorengo izan zen, auzo alkatea izendatu baino lehen Elosutik ez baitzen inor etorri Elosuko alkateari buruz hitz egiteko. Beste auzo batzuetan bozketa izendapena baino lehen egin zen.

- Zergatik aukeratu zenuen Manuel Oruesagasti?

- Normalki Alkateak auzoetan konfidantzazko pertsona bat aukeratzen du, zeren auzo alkatea ez da auzoaren ordezkaria udalean, auzo-alkatea

auzoan udalaren ordezkaria da. Nik Elosuko jendea ez nuen ezagutzen, baina lagun batzuk esan zidaten Manuelek aurretik egindako lana ona zela eta bera aukeratzea erabaki nuen.

-Zure ustez zergatik hartu du Elosuko auzo asanbladak jarrera hori?

- Nik uste dut hori beraien terkedade bat dela, esaten dute Manuel auzoak ez duela nahi... nik ez dakit zergatik zeren analisi politikoak alde batera utzi behar dira eta denon artean Elosu aurrera ateratzeko bideak ikusi behar dira. Orain, nik jakin ezkeren Manuelek auzoaren alde lanik

egiten ez duela edo problema handiak sortuko balitu, baina hori ez da horrela berak bere lana ondo betetzen du eta oso gogorra izango litzateke Alkatetza dekretu baten bidez Manuel botatzea. Ni orain Elosura joango naiz hitz egitera, baina beste auzo bat izango balitz moduan eta ez daukat Manuel aldatzeko asmorik.

BALENTIN GABILONDO:

"Alkatearentzat nik etiketa politiko bat dut eta orduan beraiei komeni zaien pertsona aukeratu dute".

- Zergatik ez zaituzte aukeratu Auzo Alkate?

-Victoriānok beti esan duena da, ni ez ninduela aukeratu ez nindualako ezagutzen, nik hori ez dut uste benetako arrazoia denik nire ustez hor arrazoi politikoak egon dira.

- Nolakoa izan da, Oruesagastiren orai-

narteko agintea?

- Bere aurka pertsonalki ez daukagu ezer, baina ikusi dugu orain auzoak daukan dinamika karako jokoz kanpo dagoela. Oruesagastik hanka sartze bat izan du Auzoaren borondate orokorra ez onartzean. Berarentzat Bergarako Alkatearen hitzak, Elosuko Auzokideen hitzak baino gehiago balio du. Berak Bergarako alkatea aukeratu eta 3 hilabetera egin zen bozketan parte hartu zuen eta 27 eta 1 galdu zuen.

- Ze kontaktua izan duzue Bergarako Alkatearekin?

- Duela 20 egun eskatu genion bilera bat egiteko, urtebete dela gauza bera esan genion eta oraindik ez gara bildu, bilera honekin konponbide bat lortu nahi dugu, orainarte feria dela eta, dena Elosuko auzoak egin du eta hau ez da normala. Guk bilera honen bitartez gauzak argitu egin nahi ditugu eta Elosuren nahia kontuan izan dezan, hau

hala ez bada Udala presionatuko dugu, baditugu hainbat datu Bergarako Udala leku txarrean jartzeko. Gainera argi utzi nahi dugu hau ez dela elosuarren arteko arazoa, Elosu eta Bergarako Udalaren arteko arazoa baizik.

- Konponbiderik badu arazoak?

- Bai, argi dago Udalak ez duela nahi ni alkate izatea, orduan irtenbidea beste pertsona bat jartzekoan legoke. Bilera bat egin ez alde guztien artean pertsona bat aukeratzea izango litzateke egokiena.

MANUEL ORUESAGASTI:

"Ni Elosuko auzo alkate sentitzen naiz eta aurrera jarraituko dut".

- Elosuko auzo alkate sentitzen zara?

- Ni Elosuko auzo alkate aukeratua nago eta gainera Elosuarrek badakite nor naizen ni eta

Bergarako Alkateak ere Elosuarrei ongi argitu die zein den egoera.

- Zer pentsatzen duzu Elosuko asanbladak alkateari bidalitako idatziari buruz?


- Idatzia bidali dezake nahi duenak aldekoa ala kontrakoa, baina ondo egin nahi dutenak isilik egongo dira.

- Auzokideekin ze harreman dituzu?

- Nirekin auzokideak ondo konpontzen dira, orain, idatzia bidali dutenak ez nautela nahi... hori beraien arazoa da. Nik orainarte Elosun egindako lanak han daude, kontrako taldeak egotea ondo ikusten dut, baina esan dezatela zer egin dudan gaizki.

- Asanbladakoek planteatzen dute bai zuk eta bai Balentinek beste batengan uztea Auzo alkatetza...


- Ni legez alkatea naiz eta ni kanporatzeko nik gaizki egindako lanak zeintzu diren demostratu beharko dute. Ni beraiekin egoteko prest nago.




"Auzo alkatea ez da auzoaren ordezkaria Udalean, auzo alkatea auzoan Udalaren ordezkaria da"



"Oruesagastik hanka sartze bat izan du auzoaren borondate orokorra ez onartzean"



"Legez alkatea naiz eta kanporatu nahi banaute, gaizki egindako lanak zeintzu diren demostratu beharko dute"



APPÉNIZ

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI




Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA



Elurra gustoko duzu?



**Gotzon Mendizabal
15 urte, ikaslea**

Ez zait gehiegi gustatzen hotz haundia egiten duelako, baina ondo dagoena da irakasle askok huts egiten dutela.



**Rosi Markina
48 urte, etxekoandrea**

Bai, asko gainera. Zoratu egiten nau erabat eta poz haundia sentitzen dut elurra egiten duen bakoitzean.



**Yolanda Ezkurra
14 urte, ikaslea**

Bai, elurretan ibiltzea asko gustatzen zaidalako, trineoan ibili...



**Martin Olabarria
29 urte, langabetua**

Bai Euskal Herri osoa elurrarekin askoz ere politagoa geratzen delako.



LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

• HEZILAN •

IKASTAROAK	ORDUAK	HASIERA
KONTABILITATE PLANGINTZA OROKORRA	60	93 - 3 - 15
AUTOEDIZIOA (VENTURA)	30	93 - 3 - 15
AUTOMATA PROGRAMABLEAK (SIEMENS)	40	93 - 4 - 19
ORDENADORE BIDEZ EGINDAKO DISEINUA (AUTOCAD)	40	93 - 4 - 19



☎ 76 38 40
Faxa: 76 38 41



Martxoak 8

Martxoak 8a urtero baldin bada emakume langileon eguna, aurtengoa oso markatuta datorkigu sozio-ekonomikoki. Egoera ekonomikoa oso larria da edozein langilerentzat, baina orain ere emakumeok izango gara krisiaren ondorio latzenak jasango ditugunak. Emakumeak izango gara edozein enpresetan lehenengo kaleratuak, soldatapeko lanen bat eskuratzeko orduan inoiz baino arazo eta oztopo gehiago aurkituko ditugu. Azken finean asko dira uste dutenak emakumeok lanpostua kentzen diogula hainbat familia bururi, gizonezkoak noski. Baina emakumeok, beste edozein pertsonak besteko eskubide daukagu lan egiteko orduan.

Bestalde, krisiaren ondorioak ez dira arlo laboralera murriztuko; eragin soziala izugarria izango da. Zerbitzu publikoetara zuzendutako aurrekontuak murrizten hasiak dira jadanik eta ondorioz planing asko itxiko dira, haurtzandegi publikoak ere gutxituz joango dira, behar ditugun zerbitzu publikoak ez dira sortuko eta abar luzea.

Beraz, argi dago egungo egoera sozio-ekonomikoak sekulako eragina izango duela emakumeengan eta orain inoiz baino garrantzitsuagoa izango dela emakumeon eskubideen defentsa. Erronka gogorra daukagu aurrean eta erantzun egin behar diogu gure borroka delako etorkizunaren giltza.

Agurne Barruso



Abortoa Bosnian

Denok dakigu Bosnian gertatzen ari dena benetan gogorra izan behar duela; telebistan zein egunkari guztietan agertzen diren irudi eta berriak ondo garbi uzten dute alderdi hau.

Baina egoera kezkarri honetan gehien harritu gaituena Juan Pablo II.aren adierazpenak izan dira: bortxatutako bosniar emakumezkoek ez abortatzea eskatu die.

Lurralde honetako gizonezko eta emakumezkoak jasatzen ari diren inpernua beraiek jakingo dute bakarrik nolakoa den; kontestu honetan ez zait normala iruditzen zer egin eta zer ez egin esaten ibiltzea emakumezko hauei, pasa duten sufrimendu guziaren ondoren ez dute hori baino errespeto gehiago merezi? Bortxaturiko emakumeek beraiek bakarrik erabaki beharko dute arazo honi dagokion auzia (beharturik seme-alabak izatea ala ez) eta guk, beste denok, beraien aukeraketa onartu beharko genuke eta gainera errespeto guztiz.

Aholkuak ematen hasirik biktima diren emakumei zuzendu beharrean ez ote litzateke egokiagoa bortxatzaileen joera salatzea; berriz ekintza lotsagarri honek gerta ez daitezen?

Amaia Zabaleta

ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

MARTXU



SAN JUAN BERGARA

☎ 76 35 51



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

EXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

A
R
R
A
N
O




Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ONENA


TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



□ Larunbat arratsaldeko sukarra

Joan den larunbat arratsaldean **JARDUNEK** antolatutako **dantza ikastaroari** eman zitzaion hasiera Institutuko gimnasioan. Bertan bildutako 40 bat lagunek kanpoan egiten zuen hotzari aurre egiteko modurik egokiena dantza egitea zela pentsatuko zuten eta, Ereintza dantzataldeko kideen agindutara berehala ekin zioten lanari. Balsa, manboa, tangoa... eta beste hainbeste estilo landuko dituzte datozen 7 larunbatetan eta espero dezagun, amaieran, ikastaroan parte hartu dutenek gainontzekoei lortu duten maila erakustea...



Ainhoa Agirreazaldegia.

□ Bertso-afaria

120 pertsona inguru bildu ziren joan den larunbatean Apotzan, Leintz bailarako bertso-eskolak urtero antolatzen duen afarian. Bertso-afari oso animatua izan zen eta besteak beste, **Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelai, Aitor Sarasua** eta **Ainhoa Agirreazaldegia** bergararrak hartu zuten parte. Ainhoak berriro ere bere maila erakutsi zuen eta prakak ala gonak aukeratzeko proposatu ziotenean, horra hor bere erantzuna: *Duda mudetan ibili ohi da/sarritan makina neska/prakak edota gonak zein jantzi/izan ohi da euren kezka/neronek ere gonenganako/ egin nahi nuke protesta/egia esan ibili ohi naiz/ jantzi hoietaz iheska/nahiz eta gustora jantziko nituen/hanka politak baneuzka.*

ITURKINTZA



ITURKINTZA

ARISTEGI - TOLA

ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA

Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17



□ **Musika mexikarra Bergaran**

Leire Ibarzabal, Asier Lazkano eta Zigor Martinez bergararrek Kojon Prieto y los Huajalotes musika talde naparrarekin abesti bat grabatu dute Napartheid kolektiboak kaleratuko duen maketarako. Alde baten **Negu Gorriak** taldearen abesti bat joango da eta bestean, berriz, Kojon Prietoren Napartheid entzun ahal izango da, Leireren bibolina eta Asier eta Zigoren saxofoia tartean. Grabazioa Berrizgo *Lorenzo Records* estudioetan burutu zen eta, orain, promozio jirari ekin diote. Bergarara bisitaldia ere ezinbesteko zen eta larunbatean Pol-Polen lortutako arrakastaren ondoren, laister izan ditzakegu lehendabiziko postuetan arrakastatsuenen zerrendan...



Goian Asier, Zigor eta Iban. Behean Leire bibolina jotzen.

**Zertan
dihardute
ba?**

JAIME GARZIA



28 urteko atletismo zaletu bergarar honek epaile lanak bete zituen astebukaeran Anoetan jokotutako Espainiako Pista Estaliko Atletismo Txapelketan eta asteartean toki berean izan zen Nazioarteko Bilkuran.

JOSEBA ASKASIBAR



Azken 5 urteotan Estatuko hainbat kartzelatan espetxeratua egon ondoren, 56 urteko bergarar hau ostegunean itzuli zen Bergarara, Gatzagatik kotxe karabana batek ongi-etorria eman ziolarik.

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategl, Tfnoa: 76 15 09

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

Umore giroan

Plaentxiara anak garbitzera

Gilaneko tabernan esaten ari ziran Eibarren amalau pisoko etxia eitzen ziarduela. Danak txundituta geratu ziran notizia onekin. Ango batek baiña, au esan zeban:

- Zertarako amalau pisoko etxia? Eta ura nun jakek? Plaentxiara etorri biako juek anak garbitzera.

San Roke puxigiakin

Plaentxian, Sanrokietan, santuaren irudiakin prozesifua eitzen dabe Eoziraiño. Esan biarra dago San Rokeren imajiñak eskuan daroiala palo luze bat, puntan puxiga antzeko batekin.

Bazetozen Ezositik bueltan kaleruntz eta tope egin dabe, Plaentxiako kalietan "gigante eta kabezuduekin". Prozesifoko batek diño:

- Eztaok deretxorik! "Gigante ta kabezuduekin" tope eñ biar...

Beste batek erantzun zetsan:

- I, berau be zelan joiak? puxigia eskuan daroiala.

Pedro Zelaia



Banco Guipuzcoanoren Bergarako sukurtsala.

Banco Guipuzcoanok Kutxa automatikoa jarri du martxan

Banco Guipuzcoanok zerbitzu berria eskainiko die bere bezeroei: dirua sartzeko kutxa automatiko iraunkorra. Banketxearen aurrekaldeko horman sartuta izango den kaja fuertea da kutxa hau eta zerbitzua erabiltzeko, baimen berezi bat izan beharko da.

Tabernariekin eta beren dirua bankura lehenbailehen eraman beharra izaten duten beste bezeroekin pentsatuta jarri du Banco Guipuzcoanok martxan zerbitzua, eta edozein momentuan, egunez zein gauzez, erabili ahal izango da, inolako endredorik gabe.

1973. J. L. Bikuña. La Voz de España.

Lapurrak denda eta tabernatan

Lapurra edo lapurrak? Egun auetan bada errian jarduna. Aspaldiko ordeaz astelehen astearteko gauean lapurrak izan ditugu; zenbait denda aztertu dute.

Igarza artille denda, Garitanoren bizartegia, Mujikaren arategia eta Intxorta kafetegia. Eramandakoa baiño andiagoa izan da egin duen kaltea ate gairako leiarrak puskatuaz; baiñan lapur xeblexe xamarrek bide dira, dirua beste gauzarik ez baitute eraman. Pentsatu bearra izango da gauzaiak geitzea. Aurreraka goaz.

1973. Mendikoi. Zeruko Argia.

ORAIN DELA...

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

IRUK-BAT IGELTSERITZA

☎ 76 24 74 20590 SORALUZE
Biltegia eta bulegoak: Zubieta, 24 behe
☎ 76 36 71 20570 BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



Arantza Uribe

Arantza Uribek jasoko du aste honetan **ALDASORO ZAPATADENDA**k emandako BONOFOTOko saria.

Orain dela bi asteko argazkian agertzen zen jauregia **Olaso Torrea** zen eta bertako seme eta Bergarako alkate izan zirenen izenak, berriz, **Miguel Jose de Olaso** eta **Telesforo Maria de Monzon** ziren. **ZORIONAK Arantzari** eta ea besteek hurrengoan suerte hobea duzuen.

*Begarako zein auzotan dago hain ospetsua den **garaixe** hau eta zein da bere aurrean dagoen **baserriaren izena**?*


Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria: **BERGARA PIELE**k emandako saria

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA Errotalde Jauregia Bergara**

EMAIOZU BUELTA ORRIARI...





... EMOIZU BUELTA BAT ESPOLOITIK



ZIPRISTIN OINETAKOAK
☎ 76 57 36



anezka ☎ 76 59 25



ALDASORO OINETAKOAK ☎ 76 01 18



BERGARA PIEL
☎ 76 20 70



ZUHAIZTI TABERNA ☎ 76 59 22

ESPOLOIKO DENDARIAK

BISITA GAITZAZU

Agorrosin jendez beteko da Aloña-Mendiren aurkako "derby"an

Klubaren Eguna sailkapeneko 2. taldearen aurkako partidua

Igandean Aloña Mendi eta Bergara K.E.ko preferenteko futbol taldeek derbia jokatu dute Agorrosinen arratsaldeko 4.45etan hasita.

Partiduak sailkapenera begira duen garrantzitari, Bergaran jokatu eta orain oñatiarrekin aritzen diren Ramon Agirrezabal (5 gol aurten), Xabier Arregi (8) eta Alatz Larrañaga bergararren Agorrosinera itzulera gehitzen zaio. Hirurak denboraldi bikaina burutzen ari dira aurten (txantxikutarrak sailkapeneko 2. tokian ditugu) eta Bergara K.E.ko agintariek datorren urtean fitxatzeko asmoa azaldu dute.

Bergaran gustora hartuko lituzkete

Jose Luis Beitia Bergarako entrenatzailearen esanetan, "poztuko ginateke hona etorriko balira. Hala ere, oso nekeza ikusten dut, Oñatin pozik daudelako eta horrez gain, igotzeko aukera



Arregi, Larrañaga eta Agirrezabal Aloña-Mendiko hiru bergararrak.

dutelako. Dena den, ez dut itxaropena galtzen".

Partiduari begira, Beitiak bere taldeak konplexurik gabe jokatu duela adierazi zigun; "egia da honelako partiduetan giro berezia izaten dela baina ez diogu horrenbesteko garrantzirik eman behar, azkenean beste partidua besterik ez da eta. Joan den

astean 3 eta 0 galdu arren, nabiko partidua ongin egin genuen oso talde onaren kontra (UPV-EHU) eta momentu onean gaudela esango nuke".

Bergarak zein Aloña Mendik ezin izan dute eguraldiagatik asteen zehar normaltasunez entrenatu. "Bi taldeok arazo berdinak izan ditugu. Gure taldean ez da nobe-

dade aipagarririk; Arrietak lesionaturik jarraitzen du eta Clemente eta Iban jokatzeko moduan izango dira. Aloña Mendiri buruz erasora errez jokatzeko duen taldea dela besterik ez dakit" esan digu Beitiak. Hamakakoa aurreratu nahi ez duen arren, gizon hauek osatu dezakete taldea: Atano; Piti, Elorza, Zangitu, Azkarate; Gomez de Segura, Clemente, Urisabel, Arana; Fran eta Ibarra edo Etxaniz.

Oñatiarren aldetik, Ramon Agirrezabalen ustetan, "gure taldea ere ondo dago eta irabazteko asmoz etorriko gara. Nere pronostikoa, 1 eta 2 gure alde. Bergarara bueltatzea? ba ez dakit, segun eta igoera lortzen dugun..., hala ere, gauzak asko aldatu beharko liriteke eta oferta ona izatea".

Sailkapenari dagokionez, Aloña Mendi bigarren dago 32 puntu eta partidua gutxiagorekin eta Bergara zortzigarren 25 punturekin. Joaneko partiduan Aloña Mendik 5 eta 3 irabazi zion orduan Jesus Izagirrek zuzentzen zuen taldeari.

Etxearen goxotasuna bere barnean dago

San Miguel E. A.

San Lorentzo, 4
☎ 76 47 90
☎ 76 01 15

Isolatu zeure etxea
hotz eta zaraten kontra



HEMEN edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88



Angiozarko ikasleak elurte egun batean. 1973.

Orduko neska-mutilek ere eskertzen zituzten elur egunak, gehienetan klaserik ez eta lehen orduetik elurretan jolasteari ekiten ziotelarik. Argazkian duzuen ikasle talde hau orain Angiozarko etxe berriak dauden lekuan gora eta behera ibiltzen zen plastiko, trineo... etab.ekin. Izatez ikasle gehiago baziren ere, askok ez zuten eskolaraino heltzerik izaten eta besteak, ba hori, apunteak eta klasea alde batera utzi eta edur pelletak elkarri botatzen jarduten zuten egun osoz. Gutxigorabehera orain bezala. Denborak ez dira hainbeste aldatu!!

Goiko ilaran: Jabier Sarrao, Francisco Alberdi "Pako", Rita Garitano, Marilu Belastegi, Mila Elorza, Idoia Aranzabal eta Mila Eguren.

Beheko ilaran: Karlos Gallastegi, Gorka Elorza "Mortzi", Jose Angel Arriaran "Pierro", Asun Errarte, Garbiñe Elorza, Mikel Aranzabal, Izaskun Eguren eta Jose Maria Alberdi "Txitxi".

*Gorka Elorza
Argazkia: Imanol Iriagarai*

Pub Berra
Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

OILAGORRA
Taberna
Barrenkale 21, BERGARA

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

Neska bat behar da Donostian pisua konpartitzeko. ☎ 76 19 29.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñatan. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Arrizurin garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat alokatzen da. ☎ 73 07 60. Begoña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Pisua salgai Herri Lagunak kalean. ☎ 76 24 79.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauzez).

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

DENETARIK

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 765584.

Eskiatzeko botak (44a) eta Snow-Board eskiatzeko tabla salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).

Bateria salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Kotxea salgai. SS-P. 75.000pza. ☎ 76 53 59.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Skiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Egunero Bergaratik Zornotzara joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Etxean 2. BUP mailako partikularrak hartuko nituzke ☎ 76 38 71.

Etxeke gela bikoitze bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

ZANUSSI garbigailua salgai. ☎ 78 34 16.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Nissan Vanette bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41

Etxean barruko ateak aldatzeko asmotan baldin bazaude ez itzazu bota, gustora hartuko ditut eta. ☎ 76 40 54 (gauzez).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Software-dun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

SEGA Megadrivea salgai. (8 jokurekin). 35.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabil).

LANA

AutoCAD, FP2 Informatika praktikan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeke lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta Interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Etxean lan egiteko aukera ematen diguzu. Aretxabaletako 161 postakutxara (20550) bidalizu karta bat.

Hildakoak

Anjel Maria Lazpiur Aldazabal
otsailak 26, 34 urte
Angeles Oruesagati Gallastegi
otsailak 26, 87 urte
Timoteo Agirrezabal Larrañaga
otsailak 27, 76 urte
Celedonio Cuesta Cuesta
martxoak 4, 89 urte

Jaiotakoak

Aste bonetan Epaitegian ez da jaiotakoen berririk jaso.

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

URRATS
Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:

Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:

Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA

GORLA

ELEKTRAGINTZA

- INDUSTRIARAKO INSTALAKUNTZAK
- ETXETARAKO INSTALAKUNTZAK
- SEGURITATE ALARMAK
- AUTOMATISMOAK
- MAKINEN BERRIKUNTZAK...

**TITULODUN
PERTSONALAREKIN
25 URTEKO
ESPERIENTZIA**

Mugertza, 3

☎ 76 19 07

BERGARA